

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

**Jakinarazpena: ezin jakinez non bizi diren, honen bidez jakinarazten zaie interesdunei biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko espedientea abiarazi dela, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik**

Saiatu arren jakinarazten Legutioko biztanleen udal erroldan arauz kanpo erroldatuta egoteagatik ofizioz baja emateko espedientea hasi delako ebazpena, zeina ondoren hitzez hitz ematen baita, ezin izan da gauzatu jakinarazpena, espedientean agerian jarri denez, eta, beraz, iragarki hau ALHAOn argitaratuta eta udalaren iragarki taulan ezarriz gauzatzen da, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 59. artikuluan xedatutakoa betetzearren.

Espedientea Legutioko Udalan dago interesdunen edo haien legezko ordezkarien eskura.

“Honen bidez, jakinarazten dizut udal honetako alkateak ebazpen hau eman duela, jakinaren gainean egon zaitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan:

Oharturik ezen pertsona bat ageri dela erroldaturik Legutioko San Roque kaleko 1. zenbakian 1. atean, eta badirela aztarnak adierazten dutenak etxebizitza hori hutsik dagoela, eta ez dela jaso bitokia aldatzeagatikiko bajaren komunikaziorik.

Ikusirik:

– 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena.

– 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen.

– Toki erakundeetako biztanle eta mugapeei buruzko arautegiak (1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa), 72. artikuluan xedatzen duela, besteak beste: udalek arauz kanpo erroldatuta egoteagatik baja emango dietela erroldan izena emanda daudenei, baldin arautegi horren 54. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, hori hala dela egiaztatu ondoren dagokion espedientean, zeinetan interesdunari entzunaldia emango baitzaio.

– Idazkariordetzaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatistikako Institutu Nazionalaren lehendakariaren eta autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin eskumenak koordinatzeko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, udal errolda kudeatzeko udalantzako jarraibide teknikoei buruzkoa. Ofiziozko bajak 5.2.4. idatz zatian xedatutakoaren arabera egin behar dira; alegia, udalak arauz kanpo erroldatuta egoteagatik ofizioz baja emango die erroldan izena emanda daudenei, baldin biztanleen arautegiaren 54. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, hori hala dela egiaztatu ondoren dagokion espedientean, zeinetan interesdunari entzunaldia emango baitzaio.

Baliatuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 21.1.a), d) eta s) artikuluetan esleitzen dizkidan eskumenak (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, 57/03 Lege abenduaren 16koak emandako idazkeraren arabera).

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Jose Vieira Pereirari Legutioko Udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedientea hasia, arauz kanpo inskribatuta egoteagatik.

Bigarrena: Interesdunari jakinaraztea ofizioz baja emateko espedientea hasi dela, berari zuzenean jakinarazpena bidalita eta, egoki bada, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratuta.

Hirugarrena: Hamar egun balioduneko epea ematea, interesdunari jakinarazpena egin edo jakinarazpen hori argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ados ez badago egoki jotzen dituen alegazioak egin eta agiri eta egiaztagiria aurkez ditzan, urteko egun gehienetan udalerrri honetan bizi dela egiaztatzeko.

Laugarrena: Izapide guztiak egin eta gero, Errolda Batzordeari bidaltzea ofiziozko bajaren espedientearen kopia, ofiziozko bajaren bidez kotasunari buruzko erabakia har dezan.

Eta hala jakinarazten zaizu, dagozkion ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten ezen egintza espres horren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango diozula Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari, dagokion txandakoari, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritakoari jarraituz eta bat etorritz Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legeak ezarritakoarekin (30/1992 Legea, azaroaren 26koa).

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, nahi izanez gero berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diozu ebazpena eman zuen organo berari, jakinarazten zaizun ebazpen espresaren aurka. Horretarako hilabete izango duzu, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera”

Legutio, 2016ko abuztuaren 23a

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**